

“Q SUKARRA”z SAIO KLINIKOA EGIN DU OSALANek

Francisco Pascual Velascok, Laredoko Ospitaleko barne medikuntzako espezialistak eta “Q sukarra” gaisotasunaz ezagutza sakona duenak, eman du gaur Osalanek Barakaldon duen egoitzan egin den saioko hitzaldi nagusia.

Laneo Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, OSALANek Q sukarrak jarduteko saio klinikoa antolatu du. Bertan, gaisotasunaz ezagutza sakona duten profesionalak parte hartu dute. Hala nola, Francisco Pascual Velascok, Laredoko Ospitaleko barne medikuntzako espezialistak eta Osalaneko eta Osasun Saileko adituek.

Bilboko Hondakinen Tratamendu Mekaniko Biologikorako Instalazioko langileen artean agertutako Q sukarraren kasuen ondotik antolatu du Osalanek saioa. Helburua, aipatutako gaisotasunaren inguruan ahalik eta informazio gehien biltzea izan da. Francisco Pascual Velascori, Laredoko Ospitaleko barne medikuntzako espezialistari egokitu zaio gaisotasunari

buruzko ikuspegi zabala ematea. Q sukarra noiz eta nola agertzen den lehen aldiz historian, tratamendua, ze gaitz eragiten duen, nola kutsatzen den, agerraldi epidemiologikoaz hitz egin ote genezakeen ala ez, eta gaitzari nola hartu aurre azaldu du.



Jarraian, Eva Alonso, Bizkaiko Osasun Publikoko zuzendaritza ordeko epidemiologoak hartu du hitza, osasun publikoaren ikuspegitik gaitzaren datu epidemiologikoen berri emateko.

Ondoren, Felix Urbaneja, Osalaneko Osasun saileko Epidemiologia eta arduradunak hitz egiten du eta bera izan da UTE TMB Arraizeko Q sukarraren agerraldiaren datu zehatzak eman dituenak. Gaisotasuna noiz agertu zen, zenbat izan diren kaltetuak, lantokian hartutako prebentzio neurriak, eta gaisotasunaren garapenari buruzko datuak.

Aipatutako hitzaldien ostean, bertaratu direnen arteko solasaldi aberasgarria izan da. Gaisotasunaren tratamenduan, honi aurre hartzerakoan eta gaisotu diren langileen segimendua egiterakoan sortu diren zalantzak argitzeko balio izan du.

Osalanek gonbidatuta Barakaldoko egoitzaraino hurbildu dira Osasun Saileko Epidemiologia Arloko eta Osasun Publikoko teknikoak; Lan Ikuskaritzako teknikoak; Osalaneko mediku eta Higiene Departamentuko langileak; eta gaisotasunaren kasuren bat izan duten enpresetako Laneo Istripuen eta Gaixotasun Profesionalen Mutua eta Prebentzio zerbitzuetako kideak.

Saio kliniko honek, erakunde guztien arteko lan irizpideak argitu eta bateratzeko balio izan du eta baita Q sukarraren agerraldiaren garapenean elkar lanean jarraitzeko ere.